

Antxiñako fotografixia

Sakon zuzturtutako ofizua izan da **banastagintzaia** Oñatin. Aspal-dittik etorren lanbide honek puntura arte iraun dau, eta kaleko nahiz baserri-tako auzo askotan zabalduta egon izan da. Kalian bertan, zenbat etxepetan ez-tittugu ezagutu banastagiñak: Kale Zaharreko beheko al-dian, San Antue kalian, Mendiko kalian, Santa Marina al-dian, Patrue kalian, Kale Barriko goiko partian, Auzotxon (oraingo Martzelino Zelaian), Auzabarri, Portaleku eta Lekunbarri inguruetan, Zubibarri (Tetuan) nahiz gaur egun Ramon Irizar izena dakon kaleko taillerretan, edota San Juan kalian, bestiak beste. Herri-gunetik aparte, baserri-giroko hainbat lekutan egin izan dira banastak. Olabarrietan gehixen bat, baiña, gutxi-asko, baita gaiñerako beste auzuetan be. Hogeigarren gizaldixaren hasieran erruz gehittu zan banastagintzaia gure herrixan. Horretarako arrazoi ugari samar egon arren, pare bat aittatu gura nuke: bata, urte batzuk lehentxuago berrehun bat **ultzegin** oñatiar lan barik geratu zirala, **puntapaixa** modernuak San Pedroko fabrikari egitten hasi ziranian; eta bestia, beste hainbeste txantxi-kuar kale gorri-ara bota zittu-aila, 1903an **Garaiñeko pospolo-fabrikia** itxi zanian. Zer-baitti obatu bihar, eta herri-ttar asko banastagintzan hasi zan lanian. Izan be, Euskal Herrixan saski-eskabide asko eguen orduan: labrantzarako ez ezik, konstruktziñorako, herri-lanetarako eta miñetarako be bai.

Banastia egitteko material nagusixak **gaztaiña** eta **haritza** izaten ziran. Lehenengua,



Makaleneko banastagiñak

batez be. Oñatik hainbeste baso izanda, erraza zan hemen orduan halako egur-klasiak eskuraketia. Seguru asko, horretxegatik jardungo eben oñatiar askok hainbeste denporan banastagintzaiarekin zerikusixa eukan zereginetan. Banastagin txikixak, sarrittan, maoristen bidez bideraketan zittu-ai-aren euren produktuak merkadura. Maiorista horreit-tako batzuk ziran **Makalenekuak**: garai batian ultzenegoziuan ibillitakuak eta gero banasta-arlora pasautakuak. Gaurko fotografixiak Makaleneko banasta-taillerraren orain dala 90 bat urteko ikuspegi bat erakusten dosku. Makalena, gaur egun Ramon Irizar deritzon kalian eguen, orain izen bereko alkartia daguen lekuan. Taillerraz gain, banasta-almazena be hantxe zan, Arregittarrak negozio

horretan Oñatin maioristarik haundixen etakuak ziran-eta. Argazkixan agerketan xakun pertsonen artetik ondorengo honeik identifikau ahal izan dittugu ezkerretik eskumara: Zutik: **Beniño Agirre**, Mendiko kalekua, banastiaren goiko arua edo **eskarpi** erakutsixaz; hurrengua, **X. X.**, lanbide honetan hainbat gauzatarako ebalten zan **kutxillua** eskuan dakola; erdixan **Pedro Arregi**, Makaleneko aitta, taillerraren eta almazenaren ugazaba; **Eugenio Igartua**, langillia, aldeko etxian bizi zan; eta **Santos Agirre**, **Santos gorra** ezaguna: **jotekua** jasoten dau eskumiagaz eta **make-tza** izeneko kutxilliari eusten xao ezkerregaz, enborretik **zimitzak** atarateko.

Jarritta: **X. X.**, bankuan zimitza lantzen, bi kirten dakon **kutxilla luziarekin**; **Gregorio**

Markuleta, Aramaixuena, Lekunbarri-ara, zimitzak erdibiketari; eta **Margarita Idigoras, Apotzagakua** izatez, Araotzera ezkondua eta garai haretan Makaleneko etxian bizi zana: **banastia josten** dihardu, azkeneko ikutuak emuteko. Atzeko neskatilla-txuak **Juli** eta **Benedikta Arregi** ahizpak dira, Makalenekuak, Pedoren alabak. Juli pelukeria izan zan urte askuan Makaleniari bertan, eta Benedikta Bittorixara ezkondu zan.

J. E.

Fotografixia Margarita Kortabarriaren bidez heldu xaku. Argibidiak, Margaritak ez ezik, Migel Jauregilatzok, Bittor Galdosek eta Angelita Markuletak be emun doskue. Milla esker danoi!